

BALOREZKO PROPOSAMENA

Eguzkideak enpresak sortutako eguzkitako modernizatuak leku bero zein eguzkitsuetarako sortuak daude. Udar, hondartzara joateko garaian, energia iturri baten falta sumatzearen ondorioz bururatu zitzaigun ideia eta gure inguruan ikusi ditugun beharrei erantzuna ematen saiatu gara.

Gure belaunaldiak teknologiarekin lotura handia duenez, zaila egiten zaigu gure egunerokoan mugikor edo beste gailu teknologikorik gabe egotea eta ondorioz, leku guztietara eramaten dugu. Hondartzara ere mugikorrarekin joaten garenez, bateria bukatzea ekiditeko, edota gure egunerokoan lagungarri diren gailu elektronikoak, eguzki plaken bidez sortutako korrante elektrikora konektatzeko aukera emango digu.

Gure eguzkitakoa ez da eguzkitako simple bat, besteetatik bereizten dituen hainbat faktore ditu. Alde batetik, prezioari dagokionez ez da beste eguzkitakoak bezain merkea izango. Beraz, klase sozial altuago bati edo erabilpen oparo eta probetxuzkoago bat emango diotenei zuzendua dagoela esan dezakegu. Aldi berean, eguzkitsuak diren eremuetako biztanleriarentzat sortutako gailu bat dugu honakoa.

Bestalde, produktu berritzaile bat dela jakinik, jendeak gure produktuagatik apustu egingo duela espero dugu eta horren ondorioz, eremu zabalago batean saltzeko aukera izango dugu. Gure iritziz, enpresarien munduan berriak garenez, gure produktuari forma emateko eta salmentan jartzeko gogotsu gaudela aitortzen dugu.

